

“Itsas dortoka”k euskal kostaldearen dibertsitatea ikertzen du

Arantzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Behatokiak, “Itsas dortoka” egitasmoaren bitartez, euskal kostaldeko bioaniztasuna ikertzen urte bete darama EIBE (Euskal Izurde eta Balezaleen Elkartea)-rekin elkarlanean. Elkarre honek, La Caixa Fundazioa eta Eusko Jaularitzak babesturiko proiektuari esker, Euskal Herriko kostaldeko zetazeoak ikertzen eta izurde haundiarentzat eremu bereziki garrantzitsuak mugatzeko garatzen ari den proiektuan barneratua dago itsas dortoka egitasmoarekin batera.

Itsas irteerak oso arrakastatsuak izan dira espezie ezberdinak ikusteko eta ikertzeko aukera izan bait dugu, ugaztunei dagokionez: zifioak (*Ziphius cavirostris*), izurde handiak (*Tursiops truncatus*), izurde marradunak (*Stenella coeruleoalba*), izurde arruntak (*Delphinus delphis*), zere txikia (*Balaenoptera acutorostrata*) eta potzuak (*Globicephala melas*). Hegaztiei dagokienez berriz: brojuak edo zangak (*Morus bassanus*) (alcatraces), ubarroiak (*Phalacrocorax carbo*) (cormoranes), ekaitz txori txikiak (*Hydrobates pelagicus*) (paiños), gabai txikiak (*Puffinus assimilis*), pottorroak (*Alca torda*) (alcas), martinak (*Uria aalge*) (Araos), lanperna musuak (*Fratercula arctica*) (frailecillos), maraikuak (*Stercorarius skua*) (págalos), eta noski antxetak.

Helburuak

Bertako bioaniztasunaren oinarrizko ekologia eta espezie babestu adierazgarrienen kontserbazio egoerari buruzko informazioa biltzea eta ezagutzera ematea, ezagutza honen bitartez, kontserbazioaren alde lanean diharduten erakundeek erreferentziatzat izan dezaten, espezie hauek eta beren habitata babesterako orduan. Ezagutza hau lortzeko honako ekintzak edo jarduerak eraman ditugu aurrera:

- Izurde handiaren populazioaren jarraipena beste interes bereziko espezieekin batera eta informazio bilketa bere biologia eta kontserbazio egoeraren inguruan.
- Dagoen informazioa zabaldu eta sakondu gure kostaldeko espezie ezberdinen distribuzioari eta aniztasunari dagokionez.
- Fotoidentifikazio katalogoak jorratuz jarraitu, (2003tik hasiak) hain zuzen ere euskal kostaldeko zetazeoen ugaritasunaren estimazioa egiteko erabiliko direnak, populazioaren tamaina aldaketak epe luzera antzemateko.

EIBE elkarteak, 2003 garren urtetik darama euskal kostaldeko zetazeoak, beraien ingurunean ikertzen, ikerlan hauek azaltzen duten moduan, gure kostaldeak balio eta garrantzi berezia dauka hainbat zetazeo espezierentzat eta baita beste animalia espezie babestuentzat ere. Ondorioz, Itsas gune babestu bat sortzeko proposamena garatu da (informe EIBE 2005) Jaizkibel, Uliia eta Txingudi-Bidasoarekin mugan. Ikerketak gune babestu hau eratzeko arrazoiak isladatzen ditu, hain zuzen ere babestutako espezieen kudeaketa bitartez, Izurde Handiaren kasua bezala .

Proposamena gauzatzeko honako ekintzak garatuko dira :

- Euskal kostaldearen ingurugiro ezaugarriak definitzea eta deskribatzea.
- Bertan diren zetazeo espezie ezberdinen zerrenda zehaztu eta jarraipen zehatza egitea, baita Europa eta mundu mailan duten kontserbazio egoera eta garrantzi bereziagatik hegazti, quelonio, eta arrainen jarraipena egitea ere.
- Gure kostaldeko uren egoera aztertu eta informazioa bildu eta bertako ekosistemetan eragin kaltegarriak dituzten faktoreen azterketa egin, hauen artean honako hauek aipa ditzazkegu: kutsadura antropogenikoa eta biologikoa, itsas trafikoa eta arrantza baliabideen ustiaketa neurrigabea.

Metodologia

Ikerketa honetarako SEC (Sociedad Española de Cetaceos,1999) elkarteko protokoloa jarraitu da, eta soilik metodologia ez intrusiboa erabili da. Ilabetero irteerak egin dira itsasora aurrez finkatutako trantsektu edo ibilbide aleatorioak eginaz, Kostaldea ahalik eta era homogeenagoan aztertzeko.

Trantsektuetan datu ezberdinak jaso izan dira: norabidea eta untziaaren posizioa, datu meteorologikoak (itsasoaren egoera, haizea...) animaliak bilatzen eginiko esfortzua (itsasoaren araberakoa eta begiraleen altueraren arabeherakoa).

Behin animaliak topatu direnean datu bilketa berri bat hasten da: animalien jarduera, duten estruktura soziala, zein norabide daramaten eta lokalizazio puntua.

Fotoidentifikazioa erabili dugun tresna oso garrantzitsu bat da, beronekin, animalia berbera ikerketa arean zenbat bider ikusten dugun zehazten dugu, honela espezie bakoitzaren gure kostaldearekiko residentzialtasuna izango dugu, baita beraien populazioaren estatusaren berri.

Honetarako bizkarraldeko hegatsaren argazki digitalak atera dira.



Itsaso azalean topaturiko zabor eta kutsaduraren(bai organiko eta inorganikoa) jarraipen kuantitatiboa ere egin da. Bide batez, azterketa eremuan garatzen diren giza aktibitateen jarraipena ere egin da, esate baterako, itsas trafikoa, arrantza profesionala, solasaldikoa, etabar.